

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA****3061**

AGINDUA, 2007ko maiatzaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez Europako Leonardo da Vinci programari dagozkion proiektuak antolatzeko eta garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia eta Etengabeko Ikaskuntzako Programaren marko berrirako deialdia (2007-2013) egiten dira.

Europar Batasuneko Kontseiluak 1999ko apirilaren 26an Leonardo da Vinci lanbide-heziketako ekintzako programaren bigarren fasea ezarri zuen, 2000-2006 epe-rako (1999ko ekainaren 11ko L146/33 zenbakia duen Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala).

Bere aldetik, Etengabeko Ikaskuntzako Programa er-kidego-ekintzako programa bat da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko azaroaren 15eko 1720/2006/CE Erabakiaren bidez onartu da. Bestalde, 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean aplikatuko da.

Programa honek Socrates (Comenius, Erasmus eta Grundwig) eta Leonardo da Vinci (azken honen bigarren fasea 2006an amaitu zen) programak ordezkatzeko ditu.

Agindu honek programa bi horiek modu berezian hartzen ditu bere barnean urte honetan. Izan ere, 2006. urtean edo aurreko urteetan Leonardo da Vinci programaren markoan aurkeztutako programak hartuko ditu, horien onuradunen fluxua 2007. urtekoa bada. Horiez gain, Etengabeko Ikaskuntzako Programa berriaren markoan onartutako proiektuak ere hartuko ditu, baldin eta horien ekintzek orain arte Leonardo da Vinci programaren barruan sartzen zirenak ordezkatzeko badiotuzte.

Programa berriak hainbat azpiprograma biltzen ditu, besteak beste, Erasmus eta Leonardo da Vinci. Erasmus azpiprogramaren helburua hiru motatako premiei erantzutea da: batetik, goi-mailako irakaskuntza-premiei; bestetik, goi-mailako ikasketetako eta lanbide-heziketako hirugarren mailako (goi-mailako prestakuntza-zikloak) ikasle guztien premiei, eta, azkenik, prestakuntza horiek ematen dituzten erakunde edo instituzioenei. Leonardo da Vinci azpiprograma, berriz, lanbide-heziketako ikasle guztien ikasketeta- eta irakaskuntza-premiak erantzutera dator, hirugarren mailako izan ezik, eta hezkuntza hori ematen duten instituzio eta erakundeen premiei ere erantzun nahi die.

Deialdi honen babespean bermatzen dira Erasmus eta Leonardo da Vinci azpiprogramen helburuak. Honako hauetan oinarritzen dira:

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN****3061**

ORDEN de 16 de mayo de 2007, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas económicas para la organización y desarrollo de proyectos en el marco del programa europeo de Formación Profesional Leonardo da Vinci (2002-2006) y en el marco del nuevo Programa de Aprendizaje Permanente 2007-2013.

El Consejo de la Unión Europea de 26 de abril de 1999 (DOUE L146/33, de 11 de junio de 1999), estableció la segunda fase del programa de acción comunitaria en materia de formación profesional Leonardo da Vinci, para el periodo 2000-2006.

Por su parte, el Programa de Aprendizaje Permanente es un programa de acción comunitario que ha sido adoptado en la Decisión n.º 1720/2006/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de noviembre de 2006, y se aplicará a lo largo del período comprendido entre el 1 de enero de 2007 y el 31 de diciembre de 2013.

Este programa sustituye e integra a los programas Sócrates (Comenius, Erasmus y Grundwig) y Leonardo da Vinci, cuya segunda fase ha concluido en 2006.

Esta Orden abarca durante este año los dos programas mencionados de forma excepcional, dando cabida a los proyectos presentados en el marco del programa Leonardo da Vinci en el año 2006 o anteriores pero cuyo flujo de beneficiarios sea en el año 2007 y aquellos proyectos que hayan sido aprobados en el marco del nuevo Programa de Aprendizaje Permanente en el año 2007 y que suplan las acciones hasta ahora incluidas en el programa Leonardo da Vinci.

El nuevo programa incluye varios subprogramas; entre ellos el de Erasmus y el de Leonardo da Vinci. Esta Orden cubrirá las ayudas para estos subprogramas. El subprograma Erasmus tiene como objetivo atender a las necesidades de enseñanza superior y aprendizaje de todos los participantes en Educación Superior y en Formación Profesional de nivel terciario (Ciclos Formativos de Grado Superior), así como a las instituciones u organizaciones que imparten este tipo de formación. El subprograma Leonardo da Vinci va dirigido a atender las necesidades de enseñanza y aprendizaje de todos los participantes en Formación Profesional, excepto los de nivel terciario, así como a las instituciones u organizaciones que facilitan esta educación.

Al amparo de esta convocatoria se apoyan los objetivos de los subprogramas Erasmus y Leonardo da Vinci que se centran en:

– Ikasleei laguntzea ezagupenak, trebetasunak eta gaitasunak eskuratzen, euren pertsona-garapena lortzeko.

– Prestakuntza-sistemetan, erakundeetan eta enpresetan kalitatearen hobekuntza eta prestakuntzaren berrikuntza sustatzea.

– Hezkuntzaren eta lanbide-heziketaren eremuetan praktika berritzaileak garatzen laguntzea eta horien garrantasuna lortzea bertan, eta herrialde parte-hartzaileen artean ere bai.

Eskatzen dituen ekintzak honako hauetan oinarritzen dira:

– Nazioz gaindiko egonaldiak enpresetan edo erakundeetan, lanbide-heziketaren hasierako ikasleentzat eta unibertsitate-ikasketak egiten dituztenentzat.

– Nazioz gaindiko egonaldiak enpresetan edo prestakuntza-erakundeetan, lan-munduko pertsonentzat.

– Lanbide-heziketako profesionalentzako egonaldiak eta elkartrukeak.

– Berrikuntza transferitzeko proiektu multilateralak.

– Berrikuntza garatzeko proiektu multilateralak.

Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiak, Leonardo da Vinci programaren esparruan (LdV-II), bigarren faseko hirugarren eta azken proposamen deialdia argitaratu zuen 2004ko apirilaren 30ean Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean. Programa horrek bi urteko balioa zuen eta bertan ezartzen zen proposamenak aurkezteko eta hautatzeko egutegia 2005. eta 2006. urteetarako.

Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiak 2006ko abenduaren 20ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen Etengabeko Ikaskuntzako Programaren DG EAC/61/06 proposamen-deialdia. Bertan azaltzen da proposamenak aurkezteko egutegia 2007ko ekitaldirako.

Neurri horiek finantzatzeko Europar batasunak jarriko duen ekarpena, orokorrean, ez da ekintzarako onesten den aurrekontu osoaren % 100era iritsiko. Ezinbestekoa da, beraz, kide diren estatuak finantzazioan laguntzea, onartzen diren ekintzak garatzeko.

Horregatik guztiarengatik,

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Deialdiaren xedea.

1.– Leonardo da Vinci Lanbide Heziketako Europa programaren barruan onartutako proiektuak (2007. urtearen aurrekoak) kofinantzatzeko diru-laguntzetarako deialdia egitea eta baita Etengabeko Prestakuntza-

– Apoyar a los participantes en la formación y adquisición de conocimientos, destrezas y cualificaciones que faciliten su desarrollo personal.

– Promover la mejora de la calidad y la innovación en formación profesional y en los sistemas de formación, instituciones y empresas.

– Facilitar el desarrollo de prácticas innovadoras en los ámbitos de la educación y formación profesional y su transferencia, incluso entre distintos países participantes.

Las acciones que cubre se centran en:

– Estancias transnacionales en empresas o instituciones para estudiantes de formación profesional inicial y de estudios universitarios.

– Estancias transnacionales en empresas o instituciones de formación para personas pertenecientes al mundo laboral.

– Estancias e intercambios para profesionales en la formación profesional.

– Proyectos multilaterales para la transferencia de innovación.

– Proyectos multilaterales para el desarrollo de la innovación.

La Dirección General de Educación y Cultura de la Comisión Europea publicó en el Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 30 de abril de 2004, la tercera y última convocatoria de propuestas en el marco de la segunda fase del programa Leonardo da Vinci (LdV-II), que tenía una validez de dos años, y en la que se establecía el calendario para la presentación y selección de propuestas para los ejercicios 2005 y 2006.

La Dirección General de Educación y Cultura de la Comisión Europea publicó en el Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 20 de diciembre de 2006 la convocatoria de propuestas DG EAC/61/06 del Programa de Aprendizaje Permanente y en ella se establece el calendario de presentación de propuestas para el ejercicio 2007.

La contribución financiera de la Comunidad para las medidas antes mencionadas, en general, no alcanzará el 100% del presupuesto total que se apruebe para la acción; por lo tanto, se hace imprescindible una cofinanciación por parte de los Estados miembros para que puedan desarrollarse las acciones que se aprueben.

Por todo ello,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Objeto de la convocatoria.

1.– Convocar ayudas económicas para la cofinanciación de proyectos aprobados dentro del programa europeo de Formación Profesional Leonardo da Vinci (convocatorias años anteriores 2007) y dentro del Progra-

ko Europako Programaren barruan, Leonardo da Vinci eta Erasmus azpiprogramei dagokiena ere. Azpiprograma horiek Lanbide Heziketako hirugarren mailari (goimailako prestakuntza-zikloak) eta unibertsitate-ikaskei eragiten diete.

2.– Europar Batasuneko finantzazioa ez da orokorrean Europako Batzordeak ekintza garatzeko onartzen duen aurrekontuaren % 100era helduko. Horrenbestez, Europar Batasunaren finantzazioak betetzen ez duen aurrekontu-ehunekoa zati batean edo osorik ordaintzeko izango dira deialdi honen bidez eskuratzen diren dirulaguntzak. Nolanahi ere, proiektu bererako jasotako laguntza guztien batuketak ez du gaindituko onartutako aurrekontu osoaren % 100.

3.– Deialdi honen kargura eman daitezkeen laguntzen guztizko zenbatekoa 793.790 eurokoa da. Artikulu honetan esleitutako zenbateko orokorra aldatu ahal izango da, guztira eskatutako laguntzen zenbateko kontuan hartuta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste laguntza-programak gauzatu ondoren agortu gabe gerta litezkeen aurrekontuen arabera eta laguntza horiek ebatzi aurretik. Inguruabar hori argitaratu emango da Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen baten bidez.

4.– Deialdi honen bidez eskura daitezkeen dirulaguntzak bateragarriak dira bestelako erakunde publiko edo pribatuetatik datozen dirulaguntzekin; nolana-hi ere, laguntza guztien batuketa, Europar Batasunarena nahiz estatuarena edo autonomia erkidegoarena, ez da Europako Batzordeak onartutako aurrekontu osoaren % 100 baino gehiagokoa izango.

Gehieneko kopuru hori gaindituz gero, deialdi honen bidez eskuratutako dirulaguntzaren kopurua murriztu egingo da, laguntza guztien batuketa onartutako aurrekontuaren % 100era heldu arte.

5.– Deialdi hau lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko da. Horretarako, aurkeztutako eta onartutako eskabide guztiak konparatuko dira, eta horien arteko lehen tasuna ezarriko da 3. artikuluan finkatutako lehen tasun- eta esleipen-irizpideak kontuan hartuta; balorazio altuena lortu dutenei baino ez zaie esleituko laguntza, agindu honen 1. artikuluan 3. paragrafoan finkatzen den aurrekontu-kreditua agortu arte.

## 2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Deialdi honetara bildu ahal izango dira erakunde eta instituzio publiko eta pribatu guztiak, baldin eta Etengabeko Ikaskuntzako Programaren deialdian onartuak izan badira edo Leonardo da Vinci programarena aurreko deialdietan onartuak izan badira baina 2007. urtean zehar garatzen badira.

Leonardo da Vinci proiektuen sustatzaile izan behar-ko dute erakunde eta instituzio publiko eta pribatuok edo, bestela, Etengabeko Ikaskuntzako Programaren esparruko proiektuen koordinatzaile izan behar-ko dute

ma Europeo de Aprendizaje Permanente en lo que corresponde a los subprogramas Leonardo da Vinci y Erasmus en lo que respecta a la Formación Profesional de nivel terciario (Ciclos Formativos de Grado Superior) y estudios universitarios.

2.– Dado que la financiación comunitaria no alcanzará en general el 100% del presupuesto que apruebe la Comisión Europea para el desarrollo de la acción, las ayudas económicas que se obtengan a través de esta convocatoria servirán para cubrir el porcentaje del presupuesto que no cubre la financiación comunitaria, sin que la suma de todas las ayudas que se perciban para un mismo proyecto supere el 100% del presupuesto total aprobado.

3.– El importe global de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria asciende a 793.790 euros. Este importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Administración y Servicios.

4.– Las ayudas económicas que puedan obtenerse por medio de esta convocatoria son compatibles con otras ayudas que procedan de otras Instituciones públicas o privadas, si bien la suma de todas las ayudas, tanto comunitarias como nacionales o autonómicas, no podrán superar el 100% del presupuesto total aprobado por la Comisión Europea.

En este caso, la ayuda obtenida por esta convocatoria se reduciría hasta situarse el total de las ayudas en el 100% del presupuesto aprobado.

5.– La presente convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso. A estos efectos, la concesión se realizará mediante la evaluación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de priorización y adjudicación del artículo 3, adjudicando sólo aquellas que hayan obtenido mejor valoración hasta el agotamiento del crédito presupuestario consignado en el párrafo 3 del artículo 1.

## Artículo 2.– Entidades beneficiarias.

1.– Podrán concurrir a esta convocatoria todos aquellos organismos e instituciones públicas y privadas que tengan proyectos, que se hayan aprobado en la convocatoria del Programa de Aprendizaje Permanente o bien hayan sido aprobados en convocatorias anteriores del programa Leonardo da Vinci pero se desarrollen durante 2007.

Estos organismos e instituciones públicas y privadas deberán ser promotores de proyectos Leonardo da Vinci o coordinadores de proyectos en el marco del Programa de Aprendizaje Permanente en los subprogramas

Leonardo da Vinci eta Erasmus (hirugarren mailako Lanbide Heziketa eta unibertsitate-ikasketak) azpiprogramen barruan. Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute helbidea.

2.– Inor ezingo da onuradun izan, baldin eta EAE-ko Ogasun Orokorreko Printzipio Antolatzaileen Legeko Testu Bateginaren (Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatua) 50. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritako klausuren baten eraginpean badago.

3. *artikulua.*– Lehentasunak ezartzeko eta esleitzeko irizpideak.

1.– Lehentasuna ezartzeko eta esleitzeko irizpideak, hurrengo idatz-zatietan aipatzen direnak kontuan hartuta, ondoko proposamenak izango dira diru-laguntza jasotzeko gai: Espainiako Leonardo da Vinci Agentziak onartutako proiektuak (2007. urtea aurretik onartuak, baina aurten garatuko direnak); 2007. urteko deialdi-koak badira, Espainiako Etengabeko Ikaskuntzako Programa berria daraman agentziak onartuak (Europako Hezkuntza Programetarako Erakunde Autonomoak), edota Europako Batzordeak onartuak 2007ko ekitaldirako eta 2007ko abenduaren 31 baino lehen martxan jartzen direnak.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutakoa kontuan izanik, deialdi honetan lehentasuna emango zaie ondokoak lortzen laguntzen duten proiektuei:

a) Prestakuntzen gardentasuna sustatzea.

b) LHko sistema eta praktiken kalitatea garatzea, ikaskuntza elektronikoko eduki egoki eta berritzaileak lantzea, eta irakasle eta prestatzaileen etengabeko prestakuntza.

c) LHko kredituen transferentzia, eta ikaskuntza ez-formalaren eta informalearen balidazioa.

d) Ikasle-irakasleen mugikortasunerako nazioz gaindikotako laguntza.

3.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak esleitzeko irizpideak hauek izango dira:

a) Proposatutako proiektua berritzailea izatea, sustatzen diren nazioz gaindikotako prestakuntza-ibilbideen metodologia, eduki eta tresnen hobekuntzari dagokienean: 25 puntu, gehienez ere.

b) Europako dimentsioaren balio erantsia: 25 puntu, gehienez ere.

c) Argitasuna eta zehaztasuna proposamenaren finantzazioan: 15 puntu, gehienez ere.

d) Parte-hartzaileen izaera multi-eragilea: 15 puntu, gehienez ere.

e) Gizonek eta emakumeek heziketaren eremuan izan behar duten aukera berdintasuna sustatzea, eta lanbideratzeko zailtasunak dituzten pertsona ahulagoek heziketara iristeko berdintasuna bultzatzea, 10 puntu, gehienez ere.

Leonardo da Vinci y Erasmus (Formación Profesional de nivel terciario y estudios universitarios), y estar domiciliados en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– No podrán ser beneficiarios quienes se hallen incurso en alguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Artículo 3.*– Criterios de priorización y de adjudicación.

1.– Atendiendo a los criterios de priorización y adjudicación que se señalan en los apartados siguientes, la adjudicación de estas ayudas se hará entre los proyectos que resulten aprobados definitivamente por la Agencia española Leonardo da Vinci (proyectos anteriores 2007 pero se desarrollen durante 2007) o aprobados por la Agencia Nacional, en este caso el Organismo Autónomo de Programas Educativos Europeos (OA-PEE) o por la Comisión Europea en la convocatoria correspondiente al ejercicio de 2007 y se pongan en marcha antes del 31 de diciembre de 2007.

2.– Teniendo en cuenta lo señalado en el apartado anterior, en esta convocatoria se apoyará prioritariamente aquellos proyectos que contribuyan a:

a) La promoción de la transparencia de cualificaciones.

b) El desarrollo de la calidad de los sistemas y prácticas de FP, elaboración de contenido de aprendizaje electrónico pertinente e innovador y formación continua de profesores y formadores.

c) La transferencia de créditos en FP y validación del aprendizaje no formal e informal.

d) El apoyo transnacional de movilidad del alumnado y profesorado.

3.– Serán criterios de adjudicación de las ayudas previstas en la presente Orden:

a) Carácter innovador del proyecto propuesto, en cuanto a la mejora de las metodologías, contenidos e instrumentos de los itinerarios transnacionales formativos que promueven, hasta 25 puntos.

b) Valor añadido de la dimensión europea que contienen, hasta 25 puntos.

c) Claridad y coherencia de la financiación de la propuesta, hasta 15 puntos.

d) Carácter multi-agente del partenariado, hasta 15 puntos.

e) Fomento de la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres en el ámbito de la formación e igualdad de acceso a la formación de personas desfavorecidas con difícil inserción laboral, hasta 10 puntos.

f) Emaizten transferentziarako gaitasuna: 10 puntu, gehienez ere.

**4. artikulua.**— Eskabideak eta agiriak.

1.— Bigarren artikuluan aipatu diren erakundeek agindu honetan araututako diru-laguntzak eskuratu nahi izanez gero, eranskinean azaltzen den ereduaren arabera beteko dituzte eskabideak; horrekin batera, Espainiako 2006ko deialdian parte hartzeko Espainiako «Leonardo da Vinci» Agentziara bidalitako agirien kopia ere aurkeztu beharko dute 2007. urtea aurretik aurkeztuak badira. 2007. urteko deialdikoak badira, aginduan agertzen diren azpiprogramei dagozkienak, Espainiako Etengabeko Ikaskuntzako Programa berria darman agentziara (Europako Hezkuntza Programetarako Erakunde Autonomora) bidalitako agirien kopia.

Aurreko deialdietan onartu eta 2007. urtean gartuko diren proiektuen kasuan, Europako Erkidegoetako Batzordearekin (Hezkuntza, Prestakuntza eta Gazteria - XXII. Zuzendaritza Nagusia) indarrean dagoen kontratuaren kopia edo Espainiako «Leonardo da Vinci» Agentziarekin duten finantza-kontratuaren kopia aurkeztu behar da; bere garaian Espainiako «Leonardo da Vinci» Agentziara bidali zen hautagaitza-inprimakia ere aurkeztu beharko da.

2007ko proiektuei dagokienez, ondokoak aurkeztu beharko dira: Etengabeko Ikaskuntzako Espainiako Agentziari bidalitako hautagaitza-inprimakia, finantza-kontratua eta, berrikuntza garatzeko proiektuak direnean, Europako Batzordearekin izenpetutako kontratuaren kopia.

2.— Halaber, ikastetxe eskatzaileko zuzendariak edo erakunde eskatzaileko titularrak sinatutako ziurtagiria aurkeztuko da. Bertan adieraziko da bestelako diru-laguntzarik —publiko zein pribatu, estatuko zein nazioarteko— jasotzen ote duten, ereduzko proiektu edo egonaldien eta elkartrukeen programa bera garatzeko. Baiezkoan, zenbatekoa zehaztu behar da, eta bai zein erakunde ematen duen ere.

3.— Eskabidea ikastetxeko zuzendariak edo proposamenaren erakunde eskatzaileko titularrak sinatuko du.

Hori ezinezkoa balitz, eskabidea sinatzen duenak zein ordezkotza-gaitasunaren indarrez diharduela ziurtatzen duen agiria erantsiko du.

4.— Erakunde eta ikastetxe pribatuek ziurtagiria aurkeztu beharko dute, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela egiaztatzeko.

5.— Agindu honetan arautzen den prozesuak 6 hilabete iraungo du, gehienez ere, indarrean sartzen denetik.

**5. artikulua.**— Eskabideen aurkezpena.

1.— Laugarren artikuluan adierazitakoaren arabera aurkeztu beharko dira eskabideak, Hezkuntza, Uniber-

f) Capacidad para la transferencia de los resultados, hasta 10 puntos.

**Artículo 4.**— Solicitudes y documentación.

1.— Los organismos e instituciones referidas en el artículo 2 interesados en acogerse a los beneficios regulados en la presente Orden formularán sus solicitudes por medio de instancias, según el modelo que figura en el anexo de esta Orden, a la que acompañarán de una copia de la documentación remitida a la Agencia Nacional Leonardo da Vinci (proyectos aprobados antes del 2007) o a la Agencia Nacional de Aprendizaje Permanente (OAPPE), agencia de nueva creación, para su participación en la convocatoria para el año 2007 en los subprogramas que se contemplan en la Orden.

En el caso de proyectos aprobados en convocatorias anteriores pero desarrollados en 2007 deberán presentar una copia del contrato vigente con la Comisión de las Comunidades Europeas, Dirección General XXII - Educación, Formación y Juventud o copia del Contrato Financiero con la Agencia Española «Leonardo da Vinci» además del formulario de candidatura remitido en su día a la Agencia Española «Leonardo da Vinci».

En lo que se refiere a los proyectos del 2007 se deberán presentar el formulario de candidatura enviado a la Agencia Nacional de Aprendizaje Permanente, el contrato financiero correspondiente y en caso de proyectos de desarrollo de innovación una copia del contrato firmado con la Comisión de las Comunidades Europeas.

2.— Asimismo, se acompañará de una certificación firmada por el/la director/a del centro solicitante o la persona titular del organismo solicitante indicando si recibe o no otras ayudas económicas, públicas o privadas, nacionales o internacionales para el desarrollo del proyecto piloto o programa de estancias e intercambios correspondiente. En caso afirmativo, especificar la cuantía y la entidad que la concede.

3.— Las solicitudes estarán firmadas por la misma persona que figura como director/a o titular del organismo solicitante de la propuesta correspondiente.

En caso de que esto no fuera posible, la persona firmante de esta solicitud adjuntará una certificación que establezca el poder de representación en virtud del cual actúa.

4.— Las entidades y los centros privados deberán presentar certificación de estar al corriente en Obligaciones Tributarias y de Seguridad Social.

5.— El plazo máximo del proceso regulado en esta Orden será de 6 meses a partir de su entrada en vigor.

**Artículo 5.**— Presentación de solicitudes.

1.— Las solicitudes, dirigidas a la Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educa-

tsitate eta Ikerketa Saileko Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzaren izena ipinita, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-ordezkaritzetan, zuzenean nahiz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako edozein baliabideren bitartez.

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau EHAAn argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera.

3.– Urtebete baino gehiago irauten duten proiektuek edo egonaldi eta elkartrukeetako programek hurrengo urteetan ere aurkeztu beharko dute eskabidea, dagokion urteko diru-laguntza eskuratu ahal izateko.

**6. artikulua.**– Diru-laguntzak kudeatzeko organoa.

Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak kudeatzea.

**7. artikulua.**– Aurkeztutako eskabideetan egindako hutsegiteak zuzentzea.

Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak hutsegitearen bat atzematen badu aurkeztutako eskabideren batean, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango zuzen dezan. Epe hori pasa ondoren zuzentzarik egin ez bada, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da. Hori egin aurretik ebazpen bat emango da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua araber, 71.1 artikuluan jasotzen den prozedurari jarraituta.

**8. artikulua.**– Ebaluazio-batzordea.

1.– Aurkezten diren eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, ebaluazio-batzordea osatuko da eta ondorengo ki-de hauek izango ditu:

– Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaria, edo berak izendatzen duen pertsona bat.

– Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzatik horretarako izendatutako pertsona bi.

2.– Hirugarren artikulua esleipenerako zehazten dituen irizpideak oinarri hartuta, ebaluazio-batzorde horrek diru-laguntzak emateko proposamen bat osatuko du.

**9. artikulua.**– Ebazpena.

1.– Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen ebazpen bidez zehaztuko da diru-laguntzak ematea edo ukatzea, ebaluazio-batzordearen proposamenaren arabera.

Aipatutako ebazpena esleipendunei jakinaraziko zaie, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

ción, Universidades e Investigación, deberán presentarse según lo señalado en el artículo 4 en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, bien directamente, o a través de cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente de la publicación de esta Orden en el BOPV.

3.– Aquellos proyectos tengan una duración superior a 1 año deberán presentar solicitud en años sucesivos para la obtención de la subvención correspondiente al año en curso.

**Artículo 6.**– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Aprendizaje Permanente la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en esta convocatoria.

**Artículo 7.**– Subsanación de defectos en las solicitudes presentadas.

Si la Dirección de Aprendizaje Permanente advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, lo comunicará a la persona solicitante, concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42, siguiendo el procedimiento previsto en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 8.**– Comisión evaluadora.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión evaluadora compuesta por los siguientes miembros:

– La Directora de Aprendizaje Permanente, o persona en quién delegue.

– Dos personas designadas al efecto de la Dirección de Aprendizaje Permanente.

2.– Esta Comisión evaluadora, sobre la base de los criterios de priorización y adjudicación detallados en el artículo 3, establecerá una propuesta de concesión de las ayudas.

**Artículo 9.**– Resolución.

1.– La concesión y denegación de subvenciones se determinará por Resolución del Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, a propuesta de la Comisión evaluadora.

Dicha resolución será notificada a las personas adjudicatarias y publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Interesatuei dagokien ebazpenik jakinarazi ez bazaie 4.5 artikuluan esandako epearen barruan, eskabi-deak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da; horrek ez du alde batera utziko administrazio honek ebazpena hartzeko duen betebeharra.

**10. artikulua.**– Ordaintzeko epea eta era.

Agindu honetan jasotako diru-laguntzak bi ordainketatan gauzatuko dira, ondoren azaltzen den bezalaxe:

a) Lehenengo ordainketa, diru-laguntzaren % 75, 11. artikuluan 1. atalean aurreikusten den epea bukatu ostean egingo da.

b) Gainerako % 25a, 11.6.1 artikulua aipatzen duen memoria jaso ondoren, baita beste memoria ekonomiko bat ere, memoria horretan aurkeztu arte egingo da, memoria horretan aurkeztu arte egingo da, Espainiako Leonardo da Vinci Agentziak eskatutako ereduaren arabera edota Europako Hezkuntza Programetarako Erakunde Autonomoak eskatutakoaren arabera.

**11. artikulua.**– Entitate onuradunen betebeharrak.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, diru-laguntza mota horien onuradunek betebeharrak dituzte:

1.– Eman zaien diru-laguntza onartzea. Diru-laguntzaren berri ematen dien jakinarazpena jaso eta hamaigabost eguneko epean onuradunek ukoa idatziz adierazten ez badute, onartu egiten dutela ulertuko da.

2.– Diru-laguntza eman den helburu zehatzerako erabiltzea, ez bada behintzat, 12. artikuluan ezarritakoa aplikagarri gertatzen.

3.– Deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzaren inguruko argibideak ematea Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, euren zereginak betetz eskatzen badizkiete.

4.– Estatuko nahiz nazioarteko bestelako administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatuetatik xede bererako eskuratu dituzten diru-laguntzen edo laguntzen berri ematea, hala egokituz gero.

5.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egin ditzakeen egiaztatzeak onartzea.

6.– Jasotako laguntzak egoki inbertitu direla justifikatzea, honako agiri hauek aurkeztuta:

6.1.– Memoria. Erakunde onuradunek memoria laburra egingo dute burututako jardueri buruz. Honako hauek azalduko dira memorian:

- a) Proiektuaren garapenaren laburpena.
- b) Lortutako helburuak.
- c) Ebaluaziorako erabilitako prozedura.

2.– De no notificarse resolución alguna en el plazo indicado en el artículo 4.5 podrán entenderse desestimadas las solicitudes afectadas, sin perjuicio de la obligación de resolución expresa que tiene esta Administración.

**Artículo 10.**– Plazo y forma de pago.

Las subvenciones contempladas en la presente Orden se harán efectivas mediante dos pagos instrumentados del modo siguiente:

a) Un primer pago del 75% de la subvención se realizará una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 11 apartado 1.

b) El 25% restante, una vez recibida la memoria a que se refiere el artículo 11, apartado 6.1 así como una memoria económica justificando los gastos realizados hasta el momento de presentar dicha memoria de acuerdo con el formato exigido por la Agencia Española Leonardo da Vinci o la nueva Agencia Española de Programas Europeos (OAPEE).

**Artículo 11.**– Obligaciones de las entidades beneficiarias.

De acuerdo con la normativa vigente, las entidades beneficiarias de este tipo de ayudas quedan obligados a:

1.– Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

2.– Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida, salvo que resulte de aplicación lo establecido en el artículo 12.

3.– Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

4.– Comunicar, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales.

5.– Someterse a las actuaciones de comprobación que pueda efectuar el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

6.– Justificar la correcta inversión de las ayudas recibidas, mediante la presentación de la siguiente documentación:

6.1.– Memoria. Los organismos o instituciones beneficiarias cursarán una breve memoria de las actividades realizadas que incluye:

- a) Resumen del desarrollo del proyecto.
- b) Objetivos conseguidos.
- c) Procedimiento de evaluación empleado.

d) Lortutako emaitzak eta emaitza horien zabalkunde.

e) Hala balegokio, proiektua amaitu arte garatu behar den lanaren plana.

Esandako memoria Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzara bidali beharko da, hilabeteko epean, ebazpena EHAA-n argitaratzen den egunetik hasita.

6.2.– Ikastetxeko Zuzendaritzaren edo erakunde pribatuko titularraren ziurtagiria; bertan adieraziko da laguntza emateko arrazoi izan zen xedea bete egin dela.

6.3.– Jasotako laguntza zuritzen duen memoria ekonomikoaren kopia: Espainiako Leonardo da Vinci Agentziara, edota Espainiako Etengabeko Ikaskuntzako Programa berria daraman agentziara (Europako Hezkuntza Programetarako Erakunde Autonomoa), edo Europako Batzordeari bidalitakoa edo bidali behar zaiena. Bertan jasoko dira Batzordearen ustez berak emandako laguntzak bil ditzakeen gastuak.

6.4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzara bidaliko dira 6.2. eta 6.3. paragrafoetan adierazten diren agiriak, 2008ko martxoaren 1a baino lehenago.

**12. artikulua.**– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatuz gero, eta betiere, diru-laguntzaren helburua bete bada, edo bestelako erakunde publiko edo pribatuen batek, aldi berean, laguntza edo diru-laguntzarik eman badu, diru-laguntzak emateko ebazpena alda daiteke. Horren ondorioz, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak kitapen-ebazpena emango du eta, bertan, eman diren diru-laguntzen zenbatekoak egokitu egingo dira.

**13. artikulua.**– Betebeharrak ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea.

1.– Jasotako diru-laguntza oinarri hauetan xedatutakoarekin bat etorritik zuritzen ez bada, zuritu gabeko diru-kopurua itzuli egin beharko da, eta, gainera, berandutze-interesak ere eskatuko dira; hori guztia izan daitezkeen administrazio-erantzukizunak baztertu gabe.

2.– Jasotako laguntzak itzuli egin beharko dira, halaber, agindu honetan xedatutakoa edo EAEko aurrekontuen konturako diru-laguntzen onuradunek bete beharreko edozein betebeharrak betetzen ez baldin bada.

3.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei Buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan eta abendua-

d) Resultados obtenidos y difusión de los mismos.

e) En su caso, plan de trabajo a desarrollar hasta la conclusión del proyecto.

Esta documentación deberá remitirse a la Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes, a partir de la publicación de la Resolución en el BOPV.

6.2.– Certificado de la Dirección del centro o del titular de la entidad privada que exprese que ha quedado cumplida la finalidad que motivó la concesión de la ayuda.

6.3.– Copia de la memoria económica justificativa de la ayuda recibida, recogiendo los gastos que la Comisión admita como imputables a la ayuda concedida, enviada o que se deba enviar a la Agencia Española Leonardo da Vinci o a la Agencia Nacional del Nuevo Programa de Aprendizaje Permanente (OAPEE) o a la Comisión Europea.

6.4.– La documentación a que se refieren los apartados 6.2 y 6.3 deberá remitirse a la Dirección de Aprendizaje Permanente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, antes del 1 de marzo de 2008.

**Artículo 12.**– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones. A estos efectos, por la Dirección de Aprendizaje Permanente se dictará la oportuna Resolución de liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

**Artículo 13.**– Incumplimiento y reintegro de la subvención.

1.– La no justificación de la ayuda percibida con arreglo a lo dispuesto en estas bases conllevará el reintegro de las cantidades no justificadas y la exigencia de los intereses de demora, sin perjuicio de las responsabilidades administrativas en que se pueda incurrir.

2.– Asimismo, procederá la devolución de las ayudas percibidas si se incumple de cualquier modo lo dispuesto en esta Orden o cualquiera de las obligaciones que competen a los beneficiarios de las subvenciones con cargo a los presupuestos de la CAPV.

3.– El procedimiento para la devolución será el regulado en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre (BOPV de 7 de febrero de 1992) y en el Decreto Legis-



ren 17ko 698/1991 Dekretuan (1992ko otsailaren 7ko EHAA) araututakoa izango da itzulketak egiteko jardunbidea.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**— Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik.

**Bigarrena.**— Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariak baimena du agindu hau ezartzeko beharrezkoak izan daitezkeen arauak eta azalpenak emateko.

**Hirugarrena.**— Agindu hau EHAA argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 16a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,  
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

lativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de los Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, se podrá interponer, potestativamente, recurso de reposición ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación o recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

**Segunda.**— Se autoriza a la Directora de Aprendizaje Permanente a dictar las normas e instrucciones precisas para la aplicación de la presente Orden.

**Tercera.**— La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de mayo de 2007.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,  
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## ERANSKINA

## LEONARDO DE VINCI ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO PROGRAMA

Nik, .....,  
 NAN zk. .... eta helbidea .....,  
 ondorengoaren zuzendari/titular naizenez .....,  
 (dagokiona adierazi eta dagozkion datuak bete)

Ikastetxea:

Izena: .....  
 Publikoa  Itunpeko pribatua  Pribatua, itundu gabekoa  
 Helbidea: .....  
 Herria: .....  
 Lurraldea: ..... Posta-kodea: .....  
 Telefonoa: ..... Faxa: ..... E-mail: .....  
 Zuzendariaren izena: .....  
 Proiektu edo programaren ardura duen pertsonaren izena: .....  
 .....  
 Eskaintzen diren irakaskuntzak eta espezialitateak: .....  
 .....  
 .....

Erakundea:

Izena: .....  
 Identifikazio fiskalerako zenbakia: .....  
 Legezko ordezkaria: .....  
 Helbidea: .....  
 Herria: .....  
 Lurraldea: ..... Posta-kodea: .....  
 Telefonoa .....  
 Proiektuaren ardura duen pertsonaren izena: .....  
 .....

HONAKO HAU AZALTZEN DUT: Europako Lanbide Heziketako Leonardo da Vinci programaren baitan eta Etengabeko Ikaskuntzako programa berriaren baitan (Leonardo eta Erasmus azpiprogrametan), proiektuak elkarrekin finantzatzeko diru-laguntzei buruzko agindu honetan ezarritakora bilduz deialdian parte hartu nahi dudala, eta deialdiaren oinarriak bere osoan ezagutzen eta onartzen ditudala. Laguntzaren bat eskuratuz gero, laguntzaren helburuak betetzeko konpromisoa hartzen dut, halaber.

HONAKO HAU ESKATZEN DUT: .....ko diru-laguntza ematea, proiektuaren edo programaren gastu osoaren % ..... egiten duena, hain zuzen ere.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko .....ren .....a.

Eskabidegilea

Eskabide hau sinatzen dudan honek ondoko hau aitortzen dut: sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik ez dugula zigor administratibo edo penalik jaso, ez eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea dela bide inolako debekurik ere.

ETENGABEKO IKASKUNTZAKO ZUZENDARI ANDREA.

## ANEXO

## PROGRAMA LEONARDO DA VINCI Y PROGRAMA de APRENDIZAJE PERMANENTE

D./Dña. ....,  
 con DNI n.º ..... y domicilio en .....  
 como director/a o titular de .....  
 (señalar lo que proceda y rellenar los datos correspondientes)

Centro educativo:

Nombre: .....

Público

Privado concertado

Privado no concertado

Dirección: .....

Población: .....

Territorio: ..... Código postal: .....

Teléfono: ..... Fax: ..... E-mail: .....

Nombre del Director/a: .....

Nombre de la persona responsable del proyecto o programa: .....

.....

Enseñanzas y especialidades que imparte: .....

.....

.....

Entidad, Organismo o Institución:

Nombre: .....

Número de identificación fiscal: .....

Representante legal: .....

Dirección: .....

Población: .....

Territorio: ..... Código postal: .....

Teléfono: .....

Nombre de la persona responsable del proyecto: .....

.....

EXPONE que desea participar y acogerse a lo establecido en esta Orden de ayudas económicas para la cofinanciación de proyectos, en el marco del programa europeo de formación profesional Leonardo da Vinci, y en el marco del nuevo Programa de Aprendizaje Permanente (subprogramas Leonardo y Erasmus) que conoce y acepta en su totalidad las bases de la convocatoria, y, se compromete, en caso de que sea concedida alguna ayuda, a cumplir con los fines de la misma.

SOLICITA que se le otorgue la ayuda económica de ....., que significa el ..... por 100 del presupuesto total de gastos del proyecto o programa.

En Vitoria-Gasteiz, a ..... de ..... de 2007.

El/la solicitante.

El/la firmante declara que el Centro no está sancionado administrativamente o penalmente por incurrir en alguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

SRA. DIRECTORA DE APRENDIZAJE PERMANENTE.